JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

5974

AGINDUA, 2008ko irailaren 23koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzkoa.

Gernika-Lumoko (Bizkaia) Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidearen espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

1.– Beatriz Plaza Inchausti, María Eugenia Llull Sesma eta Silke Nicole Haarich andreek Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa eratu dute, 2008ko ekainaren 26an Bilboko Notarioen Elkargoko Ramón Múgica Alcorta notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez (1.157 protokolo-zenbakia).

Eskritura publikoan jasota dago, halaber, Fundazioaren Patronatuak Beatriz Plaza Inchausti, Silke Nicole Haaricha eta María Eugenia Llull Sesma andreen alde emandako ahalordea.

2.– Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa delakoaren helburua estatutuen 4. artikuluan dago jasota:

a) Ikerkuntza/berrikuntza (I+G+B) eta giza hezkuntza/prestakuntza sustatzea, bai eta arte eremuan jakintza, estetika (berrikuntza-iturritzat hartuta) eta edertasuna zabaldu eta kudeatzea ere.

b) Ekonomia eta gizarte mailako garapenaren menpeko artea bultzatzea, bai herrialde garatuetan (hiri-biziberritzearen eta gizarteratzearen menpeko artea), bai garapen-bidean dauden herrialdeetan ere (garapenerako lankidetza).

c) Artea bere alderdi guztietan sortzen eta zabaltzen laguntzea, gazte argiei laguntza ematea eta kalitatezko artelanak zabaltzea lehenetsiz.

d) Kudeaketa eraginkorra eta eginkorra lortzen laguntzea, eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen eragin sozial positiboa eskuratzea, gizartearen alde egiten duen lana hobetze aldera.

Funtsean, Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioak edertasuna, artea, kultura eta bere kudeaketa sustatzen ditu eta horiek guztiek elkarlanean jardutea bilatzen du, bakearen eta elkarrizketaren aldeko kultura bat sustatzea eta gizakiaren eta gizartearen garapen integrala lortzea helburutzat harturik.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

5974

ORDEN de 23 de septiembre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa, de Gernika-Lumo (Bizkaia), sobre la base de los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por Dña. Beatriz Plaza Inchausti, Dña. María Eugenia Llull Sesma y Dña. Silke Nicole Haarich se ha constituido la Fundación denominada Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa, mediante escritura pública de constitución otorgada el 26 de junio de 2008, ante el Notario de Bilbao, D. Ramón Múgica Alcorta, número 1.157 de su protocolo.

La escritura pública recoge asimismo el apoderamiento otorgado por el Patronato de la Fundación a favor de Dña. Beatriz Plaza Inchausti y Dña. Silke Nicole Haaricha y Dña. María Eugenia Llull Sesma.

2.– El fin fundacional de la denominada Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa, viene establecido en el artículo 4 de su norma estatutaria:

a) Promover la investigación/innovación (I+D+I), la educación/formación humana, así como la difusión y gestión del conocimiento en el ámbito del arte, la estética como fuente de innovación y la belleza.

b) Promover el arte al servicio del desarrollo económico/social, tanto en los países desarrollados (el arte al servicio de la revitalización urbana, la inclusión social) como en los países en vías de desarrollo (cooperación al desarrollo).

c) Favorecer la creación y difusión artística en cualquiera de sus vertientes, primando el apoyo a los jóvenes talentos, y la difusión de obras de arte de calidad.

d) Apoyar una gestión eficaz, eficiente y con impactos sociales positivos de las entidades privadas sin ánimo de lucro, con el objeto de mejorar su misión al servicio de la sociedad.

En definitiva, la Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa promueve la belleza, el arte, la cultura y su gestión, que cooperen a promover y educar para una cultura de paz y diálogo, y así a un desarrollo integral de la persona humana y la sociedad.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 3. artikuluan adierazten denez, hau da: Carlos Gangoiti 16, 2., Gernika-Lumo.

4.– Hasierako dotazioa hogeita hamaika mila (31.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c) artikuluak.

Ondare-zuzkidurari egoki eta aski iritzi zaio fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera. Azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez aplikatu behar da artikulu hori.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, Fundazioaren Estatutuetako 17. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Fundazioa eratzeko eskrituran ezarritakoaren arabera, hauek izango dira patronatuko kide:

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 3 de los estatutos fundacionales, queda fijado en Gernika-Lumo, calle Carlos Gangoiti, 16-2.º.

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta y un mil (31.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c) del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición Final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con el artículo 17 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional estará integrado por,

		Indarraldia
Lehendakaria:	Beatriz Plaza Inchausti andrea	2013-06-26
Lehendakariordea:	Silke Nicole Haaricha andrea	2013-06-26
Idazkaria:	María Eugenia Llull Sesma andrea	2013-06-26

		Vigencia
Presidenta:	*Dña. Beatriz Plaza Inchausti*	*26-06-2013*
Vicepresidenta:	*Dña. Silke Nicole Haaricha*	*26-06-2013*
Secretaria:	*Dña. María Eugenia Llull Sesma*	*26-06-2013*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Todos y cada uno de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala dago aginduta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bes-

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han

talde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Lege eta arau hauek ikusi dira: indarrean dagoen Konstituzioa; Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua, eta orokorrean aplikatzekoak diren gainerako arauak. Ondorioz,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak, ondoko hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-230 zenbakiaz, Gernika-Lumoko (Bizkaia) Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan agindutakoaz bat etorriz.

Hirugarrena.– Agintzea Fundazioaren Patronatuak Beatriz Plaza Inchausti, Silke Nicole Haaricha eta María Eugenia Llull Sesma andreen alde emandako ahalordea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko, eskritura publikoan jasotako eran eta moduan.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 23a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Reglamento del Protectorado de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 100/2007, de 19 de junio, el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio, y demás normas de general y pertinente aplicación.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-230, de la constitución de la denominada Fundación Art4Pax / Art4Pax Fundazioa, de Gernika-Lumo (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco del apoderamiento otorgado por el Patronato a favor de Dña. Beatriz Plaza Inchausti y Dña. Silke Nicole Haaricha y Dña. María Eugenia Llull Sesma, en los términos y con la extensión recogidos en la escritura pública.

Cuarto.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.